

Goi Eskola Politeknikoa

Albisteak

## Automozioko nazioarteko aditu bat egon da Mondragon Unibertsitatean

2015/10/23

MASATO INOUE Torinoko Istitute d'Arte Applicata e Design-eko (IAAD) ikertzaile adituak, hitzaldi bat eman zuen atzo "What will accelerate the Electrical vehicle diffusion?" buruz Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan. Hitzaldia Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoko eta Industria Ingeniaritzako Unibertsitate Masterreko ikasleei zuzenduta zegoen.

Masato 1979an Design Center Of Nissan Motors-en hasi zen lanean. 2001ean Chief Desinger of Exploratory Design Dept izendatu zuten, bertan hainbat concept cars garatu zituen. 2007an Design Director (PCD) kargura igo zuten eta lehengo Nissan LEAFa garatzearen arduraduna izan zen, munduko lehengo kotxea %100 elektrikoa merkaturatzen. Nissan LEAF honek hainbat sari irabazi ditu, hala nola, 2011an European car of the year, World Car of the Year (US) , JOC Car of the year (Japan), Japan Car of the year, eta abar. Gainera, historian zehar gehien saldu den %100 elektrikoa den kotxea izan da.

2014ko iraila geroztik, Torinoko (Italia) Istitute d'Arte Applicata e Design-eko (IAAD) irakaslea da.

